

ZENBAT BURU

Amaia Urzelai

ERREPORTAJEA

Ihauterien errepasoa

ar • azkitan

BARREN

2000ko martxoaren 10a
VIII. urtea - 312. zkia

GEHIGARRIA

TxikiBARREN

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

KIROLA

Garikoitz Ulazia

auto lasterketetako

gidaria

inauteriak

KULTURA

'Zinea euskaraz'

egitasmoa m. an

2000



"Inauteri, inauteri, mozorro bat bi aurpegi"

ZONE
A NATURAL HISTORY



CHABOD

yerse
EXTRAFINE COTTON

Individual

Natural
WAVE

JACKPOT

BERRIZ ERE ZUEKIN

Levis

BUENOS LIBERTO
THE ALTERNATIVE INSPIRATION

GARATE
Jantzidenda
San Bartolome, 13
Tel 943 74 1 1 29



AMAIA URZELAI

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen ankeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Gallurra

Zenbat diaz zure bizitzan, zeozer pentsatu, esan nahi eta ixilik gelditu zeran aldixak? Zenbatetan aldatu dozu zure bizitzaren norabidia, zenbat gauza ezagutu gabe, ahoa zabaltziak ematen dizun beldurragaittik? Askotan egin al dozu jendiarekin denboraz berba, barrurago berbetan egon nahi zendunian?

Gutxi barru, nortasun hitzaren definizio edo indefinizioa galduko da. Inguruan, jendia: "Udaberri xan sartzen gera!!!" Txilizioka dakat. Oraindikan ez naiz hormonak lasai dittuala esan didan inorekin topatu.

Beldurra, lotsia, ausardia. Alkoholaren izenian botatzen ditugu asteazken arratsaldeetan esan nahi dittugunak. Gorputzian edozer sartuta egoerak laguntzen ez badau, orduan ere mutu. Gure bidian aurrera egiten dogu, penatuta baina aurrera. Ixiltasunaren gailurra. Inkomunikazioaren gailur maitagarria. Masen gailurra. Herrixana.

Gailur bat, profesionala da. Beste bat, pertsonala, eta hirugarrena omen danak,

maskaria daka. Maskaraduna, gizartiaz baliatzen da gailur pertsonalaren bila. Bere aukera: gaba eta haren substantzixak. Bere denborak: 12 mahatsen gerua, karnabalak eta abarrak. Adierazten daban egoera psikoioigikua: alaitasun mugagabia. Horrek guztixek 11 lagungarri edukitzen ez badittuzte, emaitza: hutsa.


"Gailur gorenian, ez da inor erreprimitzen. Gizartiak eta norbanakuak, euren tokixetan egoten badakite. Gailur profesionala gizartiaren idoluena da. Bixak lortzia askoren emaitza"

Gailur gorenian, ez da inor erreprimitzen. Gizartiak eta norbanakuak, euren tokixetan egoten badakite. Gailur profesionala gizartiaren idoluena da. Bixak lortzia, askoren emaitza. Gailur profesionalak asetzen dituan guztixeri, zorionak. Gailur gorena nahi eta mobitzen ez diazeneri, doluminak. Maskarekin eta gabe

gailur altuenerantz' dixezeneri, horiei, zortia, animuak, guztixa.

Renan: "Herri baten gauzarik handienak, normalean minoriak lortzen ditu". Renanen hitzek beste kezka eta min batzuk sortzen dittuzte nigan, baina esandakuekin ere, juntatzia badago. Ez al jatzu begitantzen?

Barrak, Birrak eta Barreak



TKOKM 2006993



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:

z• 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldeg Jon Eugi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorla
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADINIISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrafiaga, Ainizane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, litigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



*gizarte-ekintza
obra social*

1DANOBAT

AYGOILM
GRUPO DANOBAT

Oharra

BARRENe irakurleoi gogorarazi nahi dizuegu **ESPAINIAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZEI BURUZKO ORRI BEREZIA** KALERATUKO DUGULA ASTELEHENEAN, MARTXOAREN 13AN, Bertan Elgoibarko eta Mendaroko enaaitzak eta alderdi politikoen balorazioak emango dizkizuegu.

Mendaroko EAJri zuzerail

EAJko partaideok, otsailaren bukaeran etxez etxe banatu zenuten txostena dela-eta, berriro ere gure haserrea adierazi nahi dugu 'In Leike'ko Euskara Taldetik, euskararen inguruan duzen jarrerarekiko. Uste dugu euskaldunon eskubidea dela Udalak eta kasu honetan EAJk herriari zuzenduriko txostenak, agiriak eta komunikatuak euskaraz irakurri ahal izatea. Espero dugu berriro ere mota honetako eskutitzik idatzi beharrik ez izatea.

'In Leike'ko Euskara Taldea

BARRENe ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guzliek ondo identifikatula egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

• **BARREN**-eko 309. alean Udaltxetik atalean azaldu zen informazioaren haritik, udaltzain batek honako argitasun hauek eman nahi tuzke "alkateak eta sargentuak ziotenez, herrian dauden udaltzainen kopurua mantentzearen alde egin dute beti, baina lehen 15 udaltzain ginen eta orain, betriz, 12.

Bestalde, bi baja izan zirenean beste bi udaltzain beriekin ordezkatu zirela aipatzen dute. Baina egin zutena, 2 udaltzain artxibo eta kontadore lanetan jartzea izan zen. Gaueko txanda indartu egin dela ere aipatzen zuten, 3 udaltzainek egiten zutela gaueko txanda esanaz, baina gaueko txandan gehienez 2 udaltzain ibili izan gara, egkrztatzea besterik ez dago. Azkenik, udaltzainok ditugun bi ibilgailuek 11 eta 18 urte dituzte eta astebete daramagu ibilgailurik gabe. Hori gutxi balitz, papelik gabe eta I.T.V.-rik gabe gidatzen dugu".



• Gazte koadrila batek zapatu gaueko mozerro lehiaketari buruzko kexa bat dauka, "Plaza Handian zegoen eskenatokia txikiegia zen. Ez zegoen mozerrotutako guztientzako toki nahikorik, eta behean eginez gero, berriz, ez litzateke ezer ere ikusiko".

• Plaza Merkatuaren sarreran dagoen telefono kabina konpondu dutela txalotu nahi dute hiru neska gaztek. "Hasieran ez zuten behar bezala funtzionatzen, baina jadanik, konpondu ditzuten, izan duten azkartasunarengatik txalotu nahi ditugu. Orain bi kabina erabil ditzakegu, gainera".

• Guraso batek deitu digu 'Atxutxiamaika'ko begiraleak txalotzeko, "inauteriak zirela-eta, larunbatean egin zuten lana txalogarria izan zen eta begirale guztiak zoriondu nahi nituzke".



EUSKARA ZERBITZURAKO LAN-POLTSA OSATZEKO CURRICULUM-EN ESKAERA

• **HELBURUA:**

Euskara Zerbitzuan denboraldi baterako sortzen diren pertsonal beharrei erantzuteko, lan-poltsa bat osatzea.

III **ESKATZEN DIREN BALDINTZAK:**

EGA edo baliokidea izatea

Diplomatua izatea Soziologian edo Euskal Filologian, edota beste diplomatura bat izan arren, euskara arloan lan egindakoa izatea.

III **CURRICULUM-AK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA:**

Martxoak 20, astelehena.

■ **OINARRIAK JASO eta CURRICULUM-ak aurkezteko tokia:**

Udaleko Euskara Zerbitzua (Kultur Etxea. Nafarroa plaza, 3).


Tel. 943 74 43 66 - Ordutegia: Goizez: 8:00etatik 15:00etara.

inauteriak

2000

argazkitan

Elgoibarko inauteriek ez dute Rio de Janeiroko girorik, Veneziako lantzi eta maskara elegantetik edo Tolosako inauterietan ikusi daitezkeen mozorroen originaltasunik. Ongi pasatzeko gogoak ez du mugarik, ordea. Larunbat eta astearte arratsalde eta gauean irten zirenek ondo baino hobeto dakite hori, aukeratu ditugun argazki hauek ikustea besterik ez dago.



E R R E P O R T A J E A



"Makinak :11/akiak: gida historikoan liburua aurkeztu da

J.J Ibarretxe Makina Erremintaren Museoan izan zen aurkezpen ekitaldian

Joan den asteazkenean, hilaren 8an, "Makinak eta Gizakiak: gida historikoa" liburua aurkeztu zuten Makina Erremintaren Museoan. Patxi Aldabaldretzek idatzitako liburu honetan euskal makina erremintaren historia biltzen da. 500 orri eta 800 argazki eta grabatu dituen liburu honek Euskal Herriko ekonomia-erentzat hain garrantzitsua den makina erremintaren bilakaera laburbiltzen du. Lehenengo atalean makina erremintaren arloaren mundu mailako historia ematen du ezagutzera; bigarrenean, aldiz, gure historia. Patxi Aldabaldretzek oso ongi eza-gutzen du makina erremintaren alorra eta gainera, Makina Erremintaren Museo



Liburuaren aurkezpen ekitaldian, ezkerretik eskumara, P. Aldabaldretze, G. Garate, J.J. Ibarretxe, J.J. Imaz eta A. Ortueta.

Fundazioko presidentea da. Liburua argimratzeko AFMren (Espainiako Makina Erreminta Fabrikatzaileen Elkarte), Danobat Taldearen, BBKren eta Kutxaren

babesa jaso dute. Liburuaren aurkezpen ekitaldia Makina Erremintaren Museoan egin zen eta bertan, Patxi Aldabaldretzek egileaz gain, Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, GiIjermo Garate, Elgoibarko alkatea, Josu Jon Imaz, Industria sailburua eta Alberto Ortueta AFMko zuzendari orokorra izan ziren. Liburu honen helburua Euskal Herrian makinek, gizakiek eta enpresek, makina erremintaren alorrean egindako mendetik gorako historia jendeari azaltzea da. Liburua datorren astelehenean, hilaren 13an, Bilbon Makina Erremintaren Bienalean

jarriko da salgai eta irabaziak Makina Erremintaren Museorako izango dira, izan ere, liburuaren autore eskubideak museoari eman dizkio Patxi Aldabaldretzek.

• Elbarritu fisikoentzako Lanbide Hezkuntzarako beken deialdia zabalik dago

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak, zera eman nahi du aditzera: aurreko urteetan bezalaxe, aurten ere, Mapfre Medikuntza Fundazioak elbarritu fisikoentzako Lanbide Hezkuntzako dirulaguntzak jasotzeko deia egin duela. 2000/2001 ikasturterako dira beka eta egitasmo honen helburua pertsona hauek lan munduan integratzea da. Gai honi buruzko informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Udaleko Gizarte Ongizate Sailera jo dezakezue edo baita telefono honetara deitu ere: 943 74 10 08.

Metal mekanizazioari buruzko jardunaldia izan da Elgotarren

Hondakinak murriztuz, enpresei etekina ateratzeko moduak azaldu zituzten

Fusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, Invenmak (Erreminta Makinaren Ikerkuntza Fundazioa) eta Ihobek (Ingurugiro Gestiorako Elkarte) antolatuta, metal mekanizazioari buruzko jardunaldia izan zen joan den ostiralean, martxoaren 3an, Elgolbarren. Jardunaldi honetan "Hondakinak eta emisioak murrizteko Liburu Zuria. Metalaren Mekanizazioa" liburua aurkeztu zuten.

Gure inguruko enpresa gehienek produktio prozesuetan metalaren mekanizazioa erabili ohi dute. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzak beharrezkoa ikusi zuen Euskal Autonomi Erkidegoan, sektore honetan, sortutako hondakinak gutxitzea. Haretarako, Ihobe elkarteak lan tekniko espezializatua prestatu eta argitaratu du. Metalaren Mekanizazioaren Liburu zuriak arlo hau hobetzeko dauden aukerak biltzen ditu



Jaurlaritzako, Udaleko, Ihobeko eta Invenmako ordezkariak izan ziren jardunaldiko hizlariak.

eta baita euskal enpresan, produktio garbiantzako ingurugiro-hobekuntzarako estrategiak ere, Ostiraleko jardunaldian liburu hau aurkezteaz gain, mekanizazio-sektoreko euskal enpresa batean ingurua hobetzeko datuak eskaini zituzten eta baita hondakinak baztertuta dirua aurrezten eta ingurugima hobetzen laguntzen duten tresnak azaldu ere.



"Emakumeak han eta hemen mundu berri bat erditzen" erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean

Haizea Emakume Taldea'k martxoaren 8aren aitzakian, emakumeen errealitatea isladatzen duen erakusketa jarri du ikusgai Kultur Etxean. "Muszarik Gabe" elkartearen bidez ekarri dituzte erakusketako argazkiak eta "Emakumeak han eta hemen mundu berri bat erditzen" izenburupean, hainbat paneletan emakumeak Europan izan duen bilakaera azaldu nahi izan dute. Bestek beste, heziketa, emakume inmigranteak... dira jorrotutako arloak. Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna denez, urtero egun honen bueltan erakusketa bat antolatu ohi du Haizea'k. Aurtengoa martxoaren 3an ireki zuten eta hilaren 17ra arte egongo da ikusgai.



Josu Tellebide etnologoak mitologiari buruz hitz egin du Gaztetxean

Josu Tellebide etnologoak hitzaldi interesgarria eman zuen joan zen astelehenean, martxoaren 6an Gaztetxean. "Mitologiak, leiendak, sinismenak eta ohiturak" izenburupean, batez ere, Euskal Herriko mitologiaren jardun zuen eta jakituria zabala erakutsi zuen gai honetan. Diapositibenez, Euskal Herriaren gure mitologiak bizibizira eratu azaldu zuen donostiarrak. Ia bi orduz luzatu zen hitzaldian, Gaztetxean bildutakoak gustura joan ziren Josu Tellebideren azalpenak entzun ostean.

Martxoaren 12ko

HAUTESKUNDE OROKORRAK

EAJ-MINko kappajappi zuten ostipal goizean Plazan



Martxoaren 12ko hauteskundeak direla-eta, EAJ-PNV alderdiak karpa infomiatiboa jarri zuen ostiralean Plaza Handian. Bertan, bi telebistatan hainbat irudi eta mitin eskaini zituzten eta honetaz gain, "Zeuk erabaki" leloarekin orri informatiboak eta goxokiak ere banatu zituzten.

Bestalde, arratsaldean EAJ-PNV alderdiak kanpainarako bereziki prestatutako autobusa ere izan zen Elgoibarren herritarren botoa eskatuz.

EHko Mahai Nazionaleko Joseba Alvarezek midna eman zuen tharren larimbatean



EH alderdiak antolatuta mitina izan zen Elgoibarren joan den larunbatean, martxoaren 4an. Hizlaria EHko Mahai Nazionaleko kidea den Joseba Alvarez izan zen eta mitinean abstentzioaren aldeko apustua egin behar dela adierazi zuen. Martxoaren 12ko hauteskundeetan botorik ez emateko eskatu zien elgoibartarrei. Ekitaldian, 5(0) lagun inguru elkartu ziren eta mitinaren aurretik bertsolariak ere aritu ziren.

EH alderdiak antolatuta mitina izan zen Elgoibarren joan den larunbatean, martxoaren 4an. Hizlaria EHko Mahai Nazionaleko kidea den Joseba Alvarez izan zen eta mitinean abstentzioaren aldeko apustua egin behar dela adierazi zuen. Martxoaren 12ko hauteskundeetan botorik ez emateko eskatu zien elgoibartarrei. Ekitaldian, 5(0) lagun inguru elkartu ziren eta mitinaren aurretik bertsolariak ere aritu ziren.

EA alderdiko ordezkariak Makina Erreminta Institutuan 'izan ziren bisitan



EA alderdiko Oliveri, Lasagabaster, Goikoetxea eta Oregi, IMHn izan ziren joan den asteazkenean, otsailaren 29an. Ikastetxekeko instalazioak eta tailerra bisitatu ostean, bertako ordezkariekin izan ziren hitzetan. Martxoaren 12ko hauteskundeak gainean direla aprobe-

txatuz, orain arteko lorpenak azaldu zituzten eta baita aurrerantzeko helburuak lortzeko beraien laguntza eskatu ere.

Martxoaren 8an emakumeei zuzendutako greba konbokatuta zen

Zuenean igarriko ai litzateke emakumeek greba eginez gero?



CRISTINA CID

28 urte, etxekoandrea

Ez dut etxetik kanpo lan egiten, baina etxean bertan igarriko litzatekela uste dut. Etxe batean emakume bat falta denean sekulako hondamendia gerta daiteke.



CARMELO RODRIGUEZ

39 urte, peoia

Ez. Orain ez du etxetik kanpo lan egiten eta emaztea ardurtzen da lanez, baina ni ere gai naiz etxeko lanak egiteko. Greba luzatuko balitz, tabernan bazkaldu beharko nuke.



SAGRARIO RENGOETSEA

61 urte, etxekoandrea

Porsupuesto. Gizonezkuak laguntzen dabe, baina andriak etxian beti falta eitzen dau. Androk beti gure tokia eukitzen dou.



ASIER MAKAZAGA

35 urte, irakaslea


Ez. Gauzak nabarmen daude aldatuta. Gure generaziva dana hondatu zabana da, ordua arte gizonak ondo bizi zian eta gure garaitik aurrera, emakumiak nagusitu dia.



ESPERANZA FOLGOSO

59 urte, etxekoandrea

Bai. Egun batean ez da asko igartzen, baina astebeteko greba eginez gero, Espainia guztia geratuko litzateke. Gainera, etxekoandreak ez dugu soldatarik irabazten.



IÑAKI MORALES

20 urte, ikaslea

Bai, beraien lana beharrezkoa delako. Nire etxeko emakumeek greba egingo balute, ni joango nintzateke etxetik edo beste emakume batzuk aurkitu beharko nituzke.

Motorren erakusketa Guggenheim-en

Butroe gaztelura irteera

2 ordu libre, Bilbon ibiltzeko

Nore lthl: DBH 1-2:34 - -

Noiz: Martxoak 25, larunbata.

Irteera: 10,00etan Plaza Handian.

Buelta: 19,00etan Plaza Handian.

Prezioa; 1.500 pta.

Izena emateko: Martxoaren 13tik 20ra.

Elgoibarko Izarra K.E.

Ubitarte 4, behea

Tel.: 943 74 16 26

OP

F41



espainiar inposaketaren aurrean

Euskal Herriak esan du bai euskarari

bai ikurrinari

bai intsumisioari

bai euskal selekzioei

orain, espainiar hauteskunderen aurrean

esan bai Euskal Herriko Parlamentu Nazionalari



Martxoaren 1 2an, bUrUjabetZaranzko beste **urrats bat**

espainiarrak ez garelako, ez bozkatu!

abstentzwa



ti! Ali sfin Jost tGUlfi



11RflitUla
bitxidendo



011.0L
AZKUE
argazkiak



GfibiLOPIDO
estankoa

fafifIPPO
mertzeria



afRflTt
estankoa



QOROST1111
paperdenca



1KUS
optika

Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 61. GEHIGARRIA



Honako hau Elgoibarko Ikastolatik ekarri diguten argazkia da. Bertan etorkizuneko elgoibartarrak ageri dira. Orain dela gutxi jaio eta jadanik gustura ari dira Ikastolan. Gauza berriak ikasiz eta lagunekin jolasean, bakoitza bere bidea urratuz joango da piskanaka.

ed, ea,

Medikuak gaixoari:

- Sendatu nahi baduzu, botilatxo honetatik hamabost tanta hartu behar dituzu goizero.
- Ezinezkoa, jauna! Hamarreraino bakarrik dakit zenbatzen!



Jakitunen eskutik

Irakurketa. Nola gustagarri egin

Haurrak txikiak direnean, gurasoek loak hartzeko ipuinak kontatu edo irakurri ohi dizkiete, baina adinean aurrera joan ahala utzi egiten diote irakurketari. Berez, ez lukete horrelakorik egin behar, izan ere, ipuinen bitartez letren munduan sar ditzakete haurrak gurasoek.

Bost urte inguru dituztenean hasten dira umeak eskolan lehenengo letrak eta hitzak ikasten, eta hori bere heziketako pauso garrantzitsu bat da. Hala ere, haurrak ez du pentsatu behar irakurketa eskolako beste lan bat gehiago denik, horretarako gurasoak irakurtzen ikustea mesedegarria izan daiteke. Ama edo aita irakurtzen ari dela ikusiz gero, umeak ere liburuan idatzita dagoena zer den jakin nahiko du. Beraz, haurrari egunero liburuko orri bat irakurriz gero, piskanaka gustatu egingo zaio. Testuak irudietan agertzen dena kontatzen duela ikusiko du umeak eta letrak eta hitzak deszifratzeko gogoia sartuko zaio.

Ipuinak oso garrantzitsuak dira irakurketaren lehen pausoak emateko orduan. Ipuinetako protagonistak sarritan haurrak izan ohi dira eta etxeko txikitxoek dauzkaten arazoak kontatzen dituzte marrazkiz lagundutako istorioek.

Umeari bera bezalakoak diren haurrak ipuinetan ikusita irakurtzeko grina areagotuko zaio.

Haurrari egunero liburuko orri bat irakurriz gero piskanaka gustatu egingo zaio. Testuak irudietan agertzen dena kontatzen duela ikusiko du ume eta letrak eta hitzak deszifratzeko gogoia sartuko zaio.

Ipuinak begiratzen eta irakurtzen gauza berriak ikasiko ditu, eta irakurketa denborapasa polita dela ikusiko du. Gainera, testuak irakurtzera ohituz gero, ikasketetan aurrera doan heinean ez zaio hainbeste kostatuko irakurtzea.

Hourra irakurketara hurbil dadin, etxeko egongelako liburutegian bere ipuinentzako lekutxo bat egitea izan daiteke modurik egokiena, ahal izanez gero apalik baxuenean, umeak liburuak arazorik gabe hartzeko.

Gurasoak sarritan kezu dira beraien umeak irakurri beharrean telebista eta bideoak ikusten dituztelako edo bideojolasekin aritzen direlako. Baina kontua ez da medio hauei errua botatzeo, irakurketa eta teknologia berriak bateratzea baizik. Horretarako gurasoek eta irakasleek erakutsi beharko diote haurrari aisialdiko denbora banatzen eta irakurketa denborapasen artean azkenengo tokian ez jartzen.

Iturria:
Creceer feliz aldizkaria

Zer iritzi daukazu **yfse<<€eria** buruz?



Tv.w3_61e41 v4,v 4~,144 A4 .144e.

/44^4 e~4th

ry444 4111.eiN It4e4 ~

DANIEL ALONSO, 11 urte

2e1,e4.4 44412-4 ItyazIlth 144, 044

MIKEL RODRIGUEZ, 7 urte.



044


3.4

em_4 otzuod42,

tt4z,44 e4e.

bizi egis

MIREN RAMOS, 10 urte



**JAVITU
RIDDRICUE7
12 urte**

Gaide debalde



**LEIRE
VAZQUE7
urte**

- 1- Troglodita mozorroa.
- 2- Nolakoa izango den nire etorkizuna.
- 3- Espagetiak,
- 4- Javi De Pedro futbolariarena.
- 5- Familiako norbaiten heriotzak.
- 6- Coca Colazkoak
- 7- Nesken arropak, gonak adibidez.
- 8- Jon.

- 1- Astelehenean pailazo jantzia eta asteartean ume txikiarena.
- 2- Handitzen naizenean zer izango naizen.
- 3- Patata tortila.
- 4- Leonardo Di Capriorena.
- 5- Norbait hiltzen denean jartzen naiz triste.
- 6- Marrubizkoak.
- 7- Edozein arropa jantziko nuke.
- 8- Nerea.

Zer da *asea*.....?

NAGORE DILIBC 3 1LJUTU



Gosea daukazunean zeozer jan behar duzu. Ezin duzu jasan bi egun gosearekin.

ALCSA 3 ILJRIE



Ahoan ura egiten zaizunean eta tripak hutsik daudenean izaten dena.

IASILL IBIDILCUTXLA 11 URTE



Munduan milaka eta milaka umek eta pertsonak pasatzen duena eta batez ere orain Mozanbiken.

MELANY ARRIZALAILACA 1 1urte




Tripan hutsunea sentitzen duzunean edo janari on bat nahi duzunean gertatzen denari esaten zaio.

LNLIAD iI2IGNDG G urte



Ez jatea. Ez badut jaten mina sentitzen dut.

MAITE CALO G urte




Ez duzunean ezer jaten.

•oawnloz!6 op za
inpoci onozn 'oJedod op za
'npoci o!.thz lonalsnw op za
'npoci oapJag —

oanopuoduol
oaxia alaci
Joazni olow
razni —

OVID (1.ip ola
rijuol noi UD5G
'op npa6o uoax4a
ons4upiol onlou uoz!o



nialinpiD111511



poximpau
up Onilinpq 111301 mpuoN




Jeze aised
z!naci elnu za >pu 'olep
auea 'oienp osunzooJe
leijoalou pie 4np
eish olep ol!sw! cuocipg
'uoiewoJa OU109 lelnu
ollziap! fosou 11DIJOZELI
'zepesew npurapi,,

alan 01
Z1:101 1131141VX

oeunziuD.le 510Uallp
iziq uo.peci ZO
D111139 `aleicrziji 0)15111
10_191D9 Dis1 ollinJan
uo!6y 'uazi,ou 1Z19
DIOU D.19 UOU D.1109
elnu on!Liol auer. aqN,,

apn L
.019/0111/11CINVS



,nhatip niapp36 10Z



up Jaz



111113111513 ZIOZO :11:1513C113.10qUea

MARTXOAK 19

stin Jost



YOSU
bitxidenda


IR1011D0
kirolak



JULIO bUff10
ardoak



mertzeria




Mit'10X
loradenda

UZUPI
optika





**ZEINTZUK DIRA
GURE KOLOREAK?**



Zeuk erabaki. **eivAk,**



ste honetako erretratu zaharrak **Ina Garagarzak** laga dizkigu. Gutxi gorabehera, orain dela 22 urteko inauterietan ateratako argazkiak direla esan digu Navratilova eta Arantxa Sanchez Vicarlo dirudite

Garagarza anaiek, nahiz eta Inak, daraman bizarrarekin, Bjorn Borg tenista suediar ospetsuaren antz gehiago duela irudituri. Hala eta guztiz, estilo faltarik ezin zaie ukatu. Argazkia King-Kong parean aterata dago.




Honako hauek dira taldeko argazkian agertzen direnen izenak:

Goiko ilaran eta ezkerretik hasita:


Lourdes Bouchete, Martin Garagarza, Maria, Maite Garai, Mertxe eta ezezaguna.

Beheko ilaran: **Mari karmen Lariz, Ina Garagarza** eta **Isabell**.




ESKERTZA

2000ko otsailaren 29an, 61 urte zituela hil zen ANTONIO BELOKI AIZPITARREren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



1º,111119

nieretan ibillzeko babeden laguniza ezinbestelna da"



Garikoitz Ulazia

- **Adina:** 23 urte.
- **Zein kotxe daukazu?** Citroen Saxo.
- **Zein auto gustatuko litzaizuke gidatzea?** Mitsubishi EBO V6.
- **Gustuko pilotu bat?** Iñaki Alberdi azkoitiarra.
- **Zein igoeretan sentitu zara erosoan?** Gehixen ezagutzen dotena Urrakikua da, baina Arrateko igoera ere asko gustatzen jata.
- **Ametsetako karrera bat?** Espainiako rally txapelketan parte hartzia.

-Gabiriako rallya irabazi berri duzu, ezta? -Bai, sailkapen orokorrian berderatigarren ein naban, baina kotxian zilindradian eta edadian arabera maila desberdinak eoten dia. Nik, 1.600 zentimetro kubikotik beherako autuentzako Imsterketia eta junior mailakua irabazi nitxuan.

-Sailkapen orokorrean lehen postua atera zuen autoak zenbateko alde atera zizun? -15 segundukua. Auto lasterketa batian denbora asko da hori, baina kontuan euki bida potentzia eta zilindrada haundixaoko kotxiak diala. Auto batzuk 240 zaldi, neriak baino 100 zaldi gehixao, eta 2.300 zentimetro kubiko dakez.

-Irabazi duzun lehenengo lasterketa izan al da? -Ez, Gabirikua denboraldiko lehen lasterketia izan zan, baina aurreko urtietan beste pare bat lasterketa irabazi izan ditzut, bat Beasainen eta bestia Markinan. Hala ere, oin arte ez naban sailkapen orokorrian hain postu onik lortu.

-Noiz hasi zinen auto igoeretan? -Duela 4 urte, Jon Gonzalez elgoibartarrakin kopiloto hasi nintzan. Piloto moduan, berriz, Azpeitxin hasi tzan, R-5 turbo batekin korritxu naban nere lehenengo karrera, eta Jon euki naban kopiloto.

-Kopiloto lanetan neska bat ibiltzen duzu alboan. Ez da oso ohikoa, ezta? -Bai, Eibarko neska bat da nire kopilotua, eta egixa esan emakume gi-

txi ikusten dia auto lasterketetan, baina honek 3 urte daruaz. Aurten nerekin eingo daban bigarren urtia da.

-Zer egin behar da auto lasterketetan parte hartzeko? -Azterketa medikua pasau ostian, piloto lizentzia atera bida. Gero, auto bat lortu eta lasterketetarako prestatzen da. Soberan dakan pisu guztixa kendu, kanbixuak aldatu, zaldi potentzia gehitxu eta suspentsivak aldatu bihar jakoz, batez ere.

-Diru asko behar al da? -Bai, hala da, karreretako premixuak ez dia nahikua, eta norberan poltsikotik urten bihar dau •diru guztixak. Babesliak biharrezkuak dia biajiak eta kotxian rekanbixuak ordaintzeko, babeslien laguntzarik gabe oso zaila da karreretan ibiltzia.

-Inoiz izan duzu istripurik? -Pasa dan urtian golpe bat hartu naban Santanderren, baina susto bat besterik ez zan izan.

-Ikusleek segurtasun neurriak betetzen dituztela uste al duzu? Ez. Ikusle askok ez ditzuzte segurtasun zintxak errespetatzen eta errebuelten barrukaldian eoten dia, eta hori nahiko peligrusua da. Hori dala-eta, nahi baino gehixaotan izaten dia istripuak.

-Non izango da hurrengo lasterketa? -Urrakin izango da martxoaren 18an. Azpeitin izango dian Kilometruen alde rally sprint erako lasterketia antolau dabe.

• Mintxeta-Egondo Atletismo Taldeko korrikalariak bikainak lortu dituzte Azpeitiko krosean

Mintxeta-Egondo Atletismo taldeko 20 korrikaIari inguruk hartu zuten parte pasa den domekan, hiIaren 5ean, Azpeitiko Eskolarteko krosean. Elgoibartarrak bikain aritu ziren Azpeitiko parte zaharrean kokatuta zegoen zirkuitoart. Unai Cabo atleta gaztetxok esaterako, benjamin mutilen mailako lasterketa irabazi zuen etaAitor Arrese bigarren postuan sailkatu zen. Benjamin nesketan, berriz, Itxaso Egaña 3. postuan sailkatu zen. Alebin mailako lasterketa Aitor Arrillagak irabazi zuen, eta azkenik, Nerea Zubiaurre 3. izan zen infantil mailako lasterketan.

• Zikloturisten irteera martxoaren 12an

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hila-ren 5ean, izango da 10. zikloturista irteera. Goizeko 10:00etan Txankakua zubitik abiatu, eta honako hau izango da egingo duten itzulua: Deba, Itziar, Zumaia, Getaria, Zarautz, Meagas, Oikia, Zumaia, Itziar, Deba eta Elgoibar. Guztira 81 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

LLI

Cr)

CO

O
CCO
r-

)c:>

CCI

cr)

Egoitz Morak ilziontzezko domina lortu du Espainiako Judo Txapelketaka junior mailan

Urrea irabazteko aukerak kataluniako ordezkariaren aurka galdu zituen finalerdietan

Elgoitz Mora Ulaziak beniz ere podiumera igotzea lortu du Espainiako Txapelketan. Oraingo honetan brontzezkoarekin konformatu hehar izan du. Martxoaren 4 eta 5eko astebunian jokatu du txapelketa Madrileko Alcala de Henaresen. Sailkapenerako konbateetan, Egoitzek David Navarrokekin (Aragoiko txapelduna eta Espainiako iparraldeko sektoreko txapelduna) neurtu zituen indanak. Elgoibartarnik argi eta garbi irabazi zion eta ondoren Antonio Alonso madrildarrarekin aritu zen: Egoitzek ez zion aukerarik eman eta erraz gainditu zuen madrildarra. Era horretan, finalerdietara pasatu zen.

Finalerdietako konbatea Kataluniako Albert Navarretearen aurka tokatu zitzaion. Hasieran ondo hasi zen Egoitz, baina bat-bate-



Egoitzek, espainiar estatuan jokatu dituen txapelketa guztietan lortu du podiumera igotzea.

an bere errendimendua jaitsi egin zen eta azken segundoan konbatea galdu zuen, oso alde txikiarekin. Beraz, urrea eta zilarra lortzeko ametsak alde batera laga eta brontzezko domina lortzeko borrokatu zuen. Ruben Juanto, Nafarroako txapeldunaren aurka aritu zen. Egoitzek irabazi egin zion eta 90 kg.tik behe-rako kategorian hintgarraren postua lortu zuen. Gogoratu nahi dugu, elgoibartar gazte honek podiumera igotzea lortu duela Estatu mailan jokatu dituen txapelke-

ta guztietan. Brontzea Melillan 17 urtez azpiko mailan. Zilana Las Rozasen (Madrilen) 17 urtez azpiko mailan. Zilana Malagan junior mailan. Urrea, Madrilen 18 urtez azpikoan eta hrontzea, Madrilen junior mailan.

IMH Elgoibar eskubaloi taidea igoera fasea jokatzeko sailkatu da

Bizkaiako, Arabako eta Gipuzkoako taldeen aurka arituko dira elgoibartarrak

Elneumax Elgoibar jubenil mailako mutilen berri eman genizuen pasa den astean., Gipuzkoako txapeldun izatea lortu baitzuten. Aste honetan, berriz, IMH Elgoibar senior mutilen taldeak 2. nazio-



nal mailan izateko igoera fasea jokatu duela jakin dugit. Igoera fasea 3 talde bizkaitiutek, Arabako talde batek eta Gipuzkoako 2 taldek jokatu dute. Elgoibartarrekin batera, Zarautzeko eskubaloi taldeak ordezkatu du Gipuzkoa. Zarautzarrek eta elgoi-

bartarrek 4 taldeko ligaxka batean, lehen bi postuak eskuratu dituzte Iako jokatu dute igoera fasea. Hala ere, gaxkako garailea nor izango den argitzeko dago oraindik, azken partidua gaur, hilak 10, arratsaldeko 20:30ean jokatu dute Olaizaga Kiroldegian. Elgoibartarrek igoera fasea irabaziz gero, datorren urtean Euskal Herri osoko taldeen aurka jokatu dute. Orain dauden mailan Gipuzkoako taldeen aurka bakarrik aritzen dira.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2- Hernani 3 (3. malla)
Elgoibar 1 - Oiartzun 3 (Juh. E.L.)

Eskubalota

Tecnorneca Elg. 25 - Urela Lazti 17 (Kad. mut.)
C.D. Askartza 12 - Pagoaga Elg. 14 (Kad. nes.)
C.D.B. Leizaran 15 - Gaur Elg. 20 (Kad. mut.)
C.D. Askartza 4 - Uncela Elg. 15 (Juh. nes.)
C.B. San Adrian 15 - I.M.S. Elg. 16 (senior nes.)
Ormaiztegi 21 - I.M.H. Elg. 25 (Senior mut.)

Areto futbola

Txanera 4 - Zur Ta Lur 7 (Autonom.)
Joslakki Kirolak 5 - Zur Ta Lur 1 (1. malla.)

Idarraga Kaleak 3. saria

HAUNDIKO jokalarri erregularrena 99/00	JOKALARIA	PUNTUAK
1- Aranberri	33
2- Zufaika	28
3- Loren	27
4- Gastro	27
5- Caslillo	26
6- Polo	21
7- Alberdi	20
8- Baguh	20
9- Ibarluzea	19
10- Bravo	16
11- Diaz	15
12- Leonardo	12
13- Mikel	12
14- Ruiz	8
15- Guarrotxena	6
16- Caro	7
17- Manolo Ramos	4
18- Alkorta	4
19- Txasio	4
20- Edu	4
21- Fernandez	2

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunhata, 11
17:00 Pedrusko - Zarautz (1. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Ostirala, 10
20:30 I.M.H Elg. - Zarautz (Sentor mut.)
Larunhata, 11
16:00 Pagoaga Elg. - Aloñamerl (Kad. nes.)
17:30 Unceta Elg. - Aloñamendi Oub. nes.)



Ci Horas 23 urteko elgoibartarrak bi urte daramatza Sevillan. Bere ahizpa han bizi zela aprobetxaniz, Aste Santuan oporretara joan eta asko gustatu zitzaion hango bizimodua. "Geratzeko a.smorik gabe joan nintzen, baina hango giroa, jendea eta eguraldia zoragarriak dira eta nire ahizparekin geratzea erabaki nuen. Hasieran asko kostatzen zitzaizkidan Sevilla moduko hiri handi bateko bizimodura ohitzea, jende multzo handiak, trafikoa eta alde batetik bestera dauden distantziak direla-eta. Hala ere, oso hiri polita da eta bertako bizimodura egin naizela uste dut. Apirilean egiten den "Feria de Abril" delakoan esaterako, flamenko jantzita oso ongi pasa nuen, jai ikusgarria da". Estetika ikastaro bat egiten ari dela azaldu digu eta baita denda batean lanean ere. Eli Elgoibarrera egin duen bisita batean harrapatu digu, izan ere, bera eta bere ahizparen asmoa gurasoak beraiekin Sevillara eramatea da. Elgoibar inguruko tnen-diak eta berdetasuna gogoan dituela aipatu digu, "bi unetan pare bat aldiz bakarrik egin du euria. Aterkia erosi beharrik ere ez dut izan. Goizean jaiki eta zerura begiratzean beti dago urdin-urdina". Bestalde, AEK euskaltegian pare bat urte egin zituen euskara ikasten eta orain pena ematen dio inorekin hitz egin ezin izanak, "gutxienez BARREN daukat piska bat praktikatzeko, eta hiztegia alboan dudala irakurtzen dut".

i -Hov'cas

Alvaro del Ilags Garcie cisei-1993)



- 1901eko otsailaren 19an jaio zen, Palentziako Villaramiel herrian. 5 anai-arreba izan ziren, bera laugarrena. Umetan hento eskolan ibili zen. Gaztaroa, bertako ohiturei jarraituz, koadrilarekin jolasean pasa zuen.
- Etxean gurdiak egiten zituzten, eta 13 urterekin erremontari izateko ikasten hasi zen etxean. Gero, Palentziako Autillo eta Villanublan herrietan jarraitu zituen erremontari ikasketak, eta 17 urte zitueneko ikasitua zuen ofizioa. Etxeko tailerrean egin zuen lan hernetik alde egin zuen arte eta bezero mordoa izan zituen beti.
- Gaztetan, sanitan joaten zen Villalon, Frehilla, Capillas herrietan egiten ziren enomierietara. Soldadutza Banzelonan egin zuen. Ondoren, Vitlanamielen ezkondu zen, bertako Ezekiela del Riverorekin. 9 seme-alaba eduki zituzten, nahiz eta lehenengo biak utnetan hil ziren. Ignacio, Petra, Jose (Elgoibarko Udala Musika Bandan 40 urte daramatza eta oraindik ere segitzen du), Alvaro, Fedro, Digna Flor eta Cecitita.
- Oso ezaguna eta maitatua zen henian, trebea lanean, umoretsua, alai, grazia handia zuen txisteak kontatzeko. Senar-ernazteak gogor egin zuten lan familia handia aurrera ateratzeko.
- 1948. urte inguruan setne-alaba batzuk Elgoibarrera etorri ziren. Bi urte beranduago Alvaro bere emaztearekin batera etorri zen familiakoengana.
- "Aleorta y Cia"n hasi zen lanean eta jubilatua arte egon zen bertan. Segituan egin zituen lagunak eta enaz ohitu zen herriko hiziinodura. Familia giroko gizon honek gogoko zuen paseatzea eta kartetan jolastea, eta baita porroitik edatea ere.
- 70 urte zituenean begietako gaixoa jo eta itxutu egin zen. Alargundu ostean, familiakoek ongi zaindu zuten eta ez zuen sekula umore ona galdu. Zezenketak eta inikurtzea gogoko zituen. Gizon jatorra eta sinesmenekoa zen. Sekula ez zuen zentzurik galdu, eta buru onekoa izan zen beti.
- 1901eko martxoaren 7an hil zen, 92 urterekin.

Juanito Gorostiza



viAns BIDAIAK
311.3F117 EXPQESS

bidai agentziak
babestutako atala

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

PAISOKA

Neska
eta
mutil
gazteentzako
oinetakoak

Zapata denda
berria!

San Frantzisko, 20

**KAROBI
TABERNA**

ELGOIBAR

San Frantzisko, 37
Tel. 943 74 06 37

IIene komerniala euskaraz egitasmoa hasiko da igandean, martxoaren 12an

Hilero euskarazko filme bat ikusteko aukera izango dute haurrek eta gaztetxoek

Igandean, martxoaren 12an, "Rudy txerria" filma emango dute euskaraz Herriko Antzokian arratsaldeko 16:30ean. Pelikula honen emanaldiarekin "Zine komertziala euskaraz" izeneko egitasmoa jarriko du martxan Udaleko Euskara Batzordeak. Egitasmo honen helburua herritarrei filmak euskaraz ikusteko aukera eskaintzea da. Horrela, 2000. urtean, martxoan hasi eta abendura arte, hilean behin euskarazko filme bat ikusteko aukera edukiko dute Elgoibarko haurrek eta gaztetxoek.

Gaztelarazko pelikulen ondoan oso urria da euskarazkoen eskaintza eta horregatik Udalak esperientzia hau jarri nahi du martxan frogarako. Hasieran, egitasmo hau haur eta gaztetxoei zuzendutakoa izango da. Bi arrazoi daude



horretarako: bata, euskaraz dauden filme gehienak hurrei zuzendutakoak direla; bestea, berriz, ikusle gazte hauek direlako orain ohitura hartu eta etorkizunean ere zinea euskaraz ikustea eskatuko dutenak. Aurrerantzean helduel zuzendutako euskarazko pelikula ere eskaintzeko asmoa du Eus-

kara Batzordeak, beti ere, gaur egungo eskaintza mugatua dela kontutan hartuta. Herritarren artean euskarazko filme hauek harrera ona izatea espero dute.

"Rudy txerria"

"Rudy txerria" pelikula, Peter Timmek zuzendutako komedia edetTa da, familia guztiak ikusteko aproposa. 1996. urtean Bavariako Filme Saria irabazi zuen pelikula honetan, Rudy txerritxoak Beethoven zakun•a ekanzen digu gogora. Gutzkow familia arruntari dena primeran doakio, Rudy euren bizitzan sartu arte. Zozketa batean irabazi duten txerritxo maitagarria haurren kuttuna bilakatuko da, gurasoen nahien aurka. Gainera, txerriak, haztean, lapurrak harrapatu, futbol epaileei hozka egin eta nazioarteko txerri lasterketa bat irabaziko du.

Oihan misteriotsua

atxutxiki hilabetea

Norentzat: 1-laur 1-lezkuntzako haurrentzat
Noiz: Martxaak 25, apirilak 1 8 15
Orduetgia: Larunbatetan 10,30etatik 12,30etdha
Prezioa: 3.000 pta.
Tzena ernateko: Martxoaren 13tik 17ra

Elgoibarko Izarra K.E.
Ubitarte 4, behea
TeI ; 943 74 16 26

Antclakzailea:
Elgoibarko Izarrako
ATXUTXIAMA/KA B T.

Laguntutreak:
Elgoibarko Udala
eusko Jauricritza

eskulanak
Jaiak eta harroakea
Larunbatero
Soinu eta mimika
Jolasak

INTERESEHO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia 943 032610
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak .. 943740385
 O.YA (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria .. 943 743864
 Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
 Odol Emailak .. 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442
 PESA (Eibar) . 902 10 12 10
 Taxi geltokja 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.. 943 744366
 Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
 Kuitura Zerbitzua.. 943 742158
 Mendaroko Udala... 943 756100
 Ongizate zerbitzua .. 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa..... 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .. 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa .. 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola .. 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza. 943 740296
 Zabarren Biltokia ... 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
 HHI (EPA) .. 943 74 08 80
 Herri Eskola .. 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre . . . 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
 I kastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea..... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN..... 943 74 41 12
 El Diario Vasco .. 943 74 40 73
 El Correo Espatila.. 943 74 10 82
 Zazpiki itratia . 943 74 34 74

10 ostirala

22:30 ANTZERKIA

Antzezlanak:
 "Crímenes del corazón"
 Taldea:
 "Vaiven produueelones"
 Herriko Antzokian

22:30 KONTZERTUA

Taldea: Lorelei
 Iratxo Rock-Kafean

11 larunbata

19:00 KONTZERTUA eta SAGARDO FESTA GAZTETXEAN

Taldeak: Hiper-Kott
 (madrildarrak) eta
 Garbanzo Negro
 (galiziarrek)
 Sarrera: 500 pta.
 Antolatzailea: Gazte
 Asanblada

19:30-22:15 ZINEA

"Deep blue sea"

12 igandea

16:30 ZINEA

"Rudy txerria" (Euskaraz)

19:30-22:15 ZINEA

"Deep blue sea"

1 asteleena

22:15 ZINEA

"Deep blue sea"

14 asteartea

19:00 HITZALDIA

Gaia: Gure seme-alabak,
 beraien motibazioak eta
 eskola

Hizlaria: Luis M. Elizalde,
 E.H.U.ko irakaslea
 Antolatzailea: Kalamua
 Gurasoen Elkarte

15 asteazkena

19:00 "DEBA IBARREKO EUSKERIA" LIBURUAREN AURKEZPENA

Egilea: Koldo Zuazo

Kultur Etxean

18 osteguna

20:00 HITZALDIA

Gaia: Loditasuna eta bere
 tratamendua
 Hizlariak: Silvana Huegun,
 nutrologoa eta Rikardo
 Arriola medikua.
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Minteixa Elkarte

21:30 ZINE KLUBA

"Mifune"

17 ostirala

21:00 'ARIGERA TXOTX'

Sagardo kupela, pintxoak,
 erromeria, jolasak...
 Kultur Etxeko sotoan
 Antolatzailea:
 ARIGERA
 (Elgoibarko Izarra K.E.,
 AEK Euskaltegia, Udala
 Euskaltegia eta Udala

22:15 ZINEA

"El sexto sentido"

11
NE
A



Deep blue sea

Zientzilari talde bat Alzheimer gaixotasuna sendatzeko ikerketak egiten ari da. Marrazoen kode genetikoarekin probak eginaz lortu nahi dute beraien helburua. Laborategian egindako proben ondorioz, marrazoen ADNa aldatzea lortuko dute, eta marrazoak adimentsuagoak eta arriskutsuagoak bihurtuko dira. Izan ere, itsasoko harrapari odoltsueneri adimena gehituz gero arriskua bikoizten da.

Zuzendaria: Renny Harlim.
Antzezleak: Thomas Jane,
Safron Burrows, Samuel L. Jackson.

• **Gurasoentzako fardunaldiak Elgolbarko Herri Eskolan**

Herri Eskolako `Kalamua Gurasoen Ellcartea`k gurasoei zuzendutako jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu. Jardunaldien helburua, seme-alaben heziketan lagungarriak izan daitezkeen hainbat aholku adituen eskutik jasotzea da. Guztira, 3 hitzaldi prestatu dituzte. Hirurak Kultur Etxean izango dira eta ordutegi berdinean, arratsaldeko 19:00etan, hain zuzen ere. Lehenengo hitzaldia martxoaren 14an, asteartean, izango da. Luis Mari Elizalde, EHU-ko irakasleak, "gure seme-alabak, beraien motibazioak eta eskola" izeneko hitzaldia eskainiko du. Jose Romo, psikologo eta sofrologoak emango du bigarren hitzaldia martxoaren 21ean, farnihako bizitzan estresa gainditzeari buruz hitz egingo du. Azkenik, martxoaren 28an, Alvaro Beriaran pedagogoak, gurasoek eguneroko bizitzan dituzten jarreraren berri emango du. Kalamua Gurasoen Elkartetik adierazi digutenez, ikastetxe eta instituzio guztiak daude gonbidatuta.

• **"Deba ibarreko euskaria" liburua aurkeztuko du Koldo Zuazok martxoaren 15ean Kultur Etxean**



Koldo Zuazok "Deba ibarreko euskaria" liburua aurkeztuko du datorren asteazkenean, hilaren 15ean Kultur Etxean iluntzeko 19:00etan. Filologo eibartarrak Debarroko

hamabost herrietako euskara aztertu du, Deba, Itziar eta Mallabiakoa izan ezik beste guztietakoa. Tartean dago, jakina, Elgoibarkoa ere, beraz, hizkera elgoibartarraren ezaugarriak ezagutu nahi dituenak, aukera ederra dauka aurkezpen honetara joanez gero. Liburuaren argitalpenerako hamaika udalen laguntza jaso du Zuazok, Elgoibarko udalarena barne. Liburua bera euskalkian idatzita dago, baina hizkera argia eta erraza erabili du ikertzaileak informazioa ahalik eta irakurle gehienen eskura ipintzearen.

• **`ARIGERA Txotx` sagardo festa, martxoaren 17an, Kultur Etxeko sotoan**

`ARIGERK, helduen euskalduntze-alfabetatzea sustertzeko proiektua hasi da jarduerak prestatzen, eta datorren hilaren 17rako, jardueretan parte hartuko dutenek elkar ezagutzeko asmoz, `ARIGERA txotx` prestatu dute. Bertan, pintxoak, sagardoa, intxaurrak, gazta eta menbriloaz gain, erromeria eta jolasak izango dira. Euskara ikasleentzat eta ingurukoentzat zuzenduta dagoen afaria gaueko 21:00etan hasiko da Kultur Etxeko sotoan. Afaltzera joan nahi dutenek, martxoaren 16a baino lehen izena eman beharko dute euskaltegietan edota Elgoibarko Izarrako 943 74 16 26 telefonora deituz. Gaueko 22:30etik aurrera edonor sartu ahal izango da, nahiz eta aurretik izenik eman ez. Prezioa 500 pezetakoa izango da.

• **Lilathoian parte harizeko tzenematea Pitxintxu dendan egin daiteke**

Urteroko ohiturari jarraituz, hainbat emakume elgoibartarrek Donostian egiten den Lilathoian parte hartzeko asmoa dute martxoaren 19an. Hori dela eta, parte hartu nahi duten emakume guztiak Pitxintxu dendan eman dezakete izena.

• **Loditamari eta bere tratamenduari buruzko martxoaren 16an**

Eibarko Minteixa Elkartearen eskutik, Silvana Huegun nutrologoak eta Ricardo Arriola medikuak lodi-tasuna eta bere tratamenduari buruzko hitzaldia eskainiko dute ostegunean, martxoaren 16an, Kultur Etxean. Saioa arratsaldeko 20:00etan hasiko da eta gazteleeraz izango da.

1)11Zfi1D211

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
11	Yudego*	Escala
12	Yudego*	Escala
13	Bidasolo	Bidasolo
14	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
15	Fernandez	Fernandez
16	Yudego	Yudego
17	Zabaleta	Zabaleta

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. IGNACIO FERNANDEZ Herriko enpararriza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

12 igandea Zabaleta

GARRI kluba



Zuzendaria: Soren Kragh-Jacobsen.
 Antzezleak: Anders W. Berthelsen, Iben Hjejle, Jesper Asholt.

Mifume

Dogma izeneko zine-estiloaren himgarren entrega da, `Los Idiotas` eta `Celebracion`-en ondorengoa. Arau zinematografiko guztiak apurtu eta estilo librean eginga dago. Egungo gizarte dani-markatzen dituen kontrasteak aztertzen ditu pertsonaien arteko harremanen bitartez. Protagonista nagusia aita hil berri zaioren exekutiboa da. Aita hil ostean, berari dagokio baserri giroan bizi den familia aurrera ateratzea. Film honek epai-mahaiaren sari Nagusia jaso zuen Berlinen.

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

Lana

• ESKAINTZA •

- Graiko tabernan kamareroa eta sukaldarako laguntzailea behar dira. Ez da beharrezkoa esperientzia izatea. tr 943 74 42 65
- Etxeko lanak egiteko eta 8 urteko haurra zaintzeko neska behar da. it 656 78 98 82

Personara arduratsua belutr da 2 haur zaintzeko. Sukaldean aritzen jakitea koment da, ar 943 74 35 62 (9:00-13d0) / 17:00-20:0(1 Itziar)

- Pintoreak behar dira. Esperientziadunak badira hobea. a 943 74 15 52/60611 43 20
- Pertsona euskalduna behar da goizez 2 ume zaintzeko. tr 943 74 05 14/ 943 74 15 16/ 626 23 75 70

• ESKAERA •

- Espertentziadun neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko (tabernak, lokalak, etxeak...) Tr 943 17 29 20 (Maite)
- Neska eskaintzen da goizetan lan egiteko. s 943 74 29 73
- Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo ecladetuak zaintzeko, etxean nahiz ospitalean. Egunez edo gatiez. s 943 74 27 78 (Itziar)

Bestelakoak

- Urrezko belturritakoa galdu dut Urasandi eta San Roke artean. it 943 74 45 23 (Mari Carmen)
- Bidaiarako poltsa galdu dut Merkatu plazatik Plaza txikira birtartean. Barruan arropa dauka. •r 943 74 03 65
- Zilarrezko erlojua galdu dut, ambulategi ondoan. Topatu duenak eraman dezala mesedez udaltzaingora,
- Gaztetxerako aulkiak eta mahaiak behar dira. Soberan izan eta ematea nahi baldin baduzue deitu. Jasotzera pasako gara. s 943 74 35 72

Elxebizitzak

- Gela bat dauka alokatzeko. e 943 74 18 81
- Konpartitzeko pisu bat edo logela hartuko nuke alokairuan. tr 667 91 22 54
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 3 gela edo 2 logela eta egongela. Altzariarik gabe. e 696 47 16 95
- Ikasle pisua osatzeko jentilea behar da. 2 logela libre. •r 943 62 53 77 (Fernando)
- Etxea alokatzen dut Erretxindin. Altzariekin. e 943 74 33 06
- Apartamentua salgai Deban, Itstsbegt kalean. Garajea dauka. tr 943 19 23 48
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ir 943 74 04 86
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Ahal bada altzariekin. tr 626 80 80 93
- Etxea alokatzen dut P. Muguntza Etorbidean. 3 logela. s 943 74 27 79
- Etxea salgai Urasandin. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde, balkota eta ganbara. 943 74 15 42
- Etxea salgai Muguruza kaleko 26. zenbakian. a 943 85 08 92

Salerosketak

- Autoa salgai W-Polo Coupe GTI. tr 943 74 15 19 (eguerdian deitu)
- Ordenagailuarentzat mahaia salgai. Erabili gabe. tr 943 74 32 98
- Ohea egiten den 90em zabaleko sofa salgai. Egoera onean. Berri-berria. scr 943 74 21 68

Garajeak

- Garajea alokatuko nuke Ikastola ondoan. mr 943 74 28 24
- Garajea salgai Pista Beltzean. tr 943 74 00 39

Agurrak


- Zorionak Eskarlata 011 arari, disfraz lehiaketan bakarkako saria irabazi zuelako. Kontuz eskutxo horiekin!
- Zorionak Ikastola C taldeari, partidu zailena irabazi zittelako, Piliar Bren partez.
- Zorionak Sara De Castrori, martxoaren 6an 5 urte bete zituelako. Ionen eta Eiderren partez.
- Zorionak Unai Ortigari, martxoaren 12an bere trtebetetze eguna delako. DBHlekoen eta bereziki Gutenen partez.
- Zorionak Sandrari, astelehenean 12 urte bete zituelako. Bere gelakoan partez.
- Zorionak Francisco Urbietari, gaur, hilak 10, uneak bete dituelako. Familiakoan partez.
- Zorionak Sergiori, 12urte bete dituelako. Anderren partez.



- Zorionak Reme eta Takiori AEK euskaltegiko taldearen partez, ondo pasatu bidaian eta etorri laster euskaltegira txartpain botila hatekin zuen ezkontza ospatzeko.




- Zorionak eta Muxu handi bat Ioni, gaur, hilak 10, 2 urte bete dituelako. Familiaren eta bereziki Gorkaren eta Nearearen partez.



- Zorionak Ane Artolari, martxoaren 12an 4 urte beteko dituelako, Familiaren partez egun ona pasa dezazula.




- Zorionak Unai Ortega Truciosi, igandean 13 urte beteko dituelako. Amaren, anaia-aren, amama Asce-aren eta Etxeberri-ko osaba-izeben eta lehengusuen partez.



- Zorionak Leireri, martxoaren 13an 2 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



- Zorionak Nerea Sanchezi, gaur, hilak 10, 14 urte bete dituelako. Familiaren eta bereziki Oselen partez.




- Zorionak Ainhaa Larreategiri, gaur, hilak 10, 5 urte bete dituelako. barko familiaren partez.

Optika



Jose Artetxe, 10
Tel. 943 15 75 74
AZPEITIA



11
112
211
111
110
400

urte
optikaren munduan
zure zerbitzura

 **ikus**
OPTIKA

San Bartolome, 10
Tel. 943 74 37 34
ELGOIBAR



ELGOIBARREN EZEZIK ORAIN **AZPEITIAN** ERE AURKITUKO GAITUZU

BIKAIN

AHOLKULARITZA

BAZKIDE
2000ko K1DEA
(ELGOIBAR)



2000. ntelo 1105126e4 ettWeel

R'optedultau!

BIKAIN
AHOLKULARITZA

FISKALA LABORALA KONTABLEA

Antonio Arrillaga, 4 behea
Tel. 943 74 45 57
Faxa: 943 74 04 08
20870 Elgoibar
Gipuzkoa

▶ Aholkularitza Eta kontsulta zErbitzua

(Kontablea)

Fiskala

(lan arlokoa)

Ouridikoa)

(MERkatal arlokoa)

▶ BidEragarritasun planak

▶ AsEguruak

▶ Agentzia bidEzko banka zerbitzua